



Elorrioko udala
Idazkaritza
Secretaría

Herriko Plaza
48230 Elorrio-Bizkaia
Tel: 946 582 712
Faxa: 946 583 287
www.elorrio.eus

IRAGARKIA

Elorrioko Udalak 2026ko Elorrioko dendetan erosketa kanpainarako dirulaguntza deialdia onartzea (2026-00659 espedientea)

2026ko martxoaren 24ko Alkatetzaren 183 zk.ko Dekretuaren bidez, Elorrioko merkataritzan 2026ko erosketa-kanpainarako udal-dirulaguntzaren deialdia onartzea erabaki zen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean BAOn argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean BAOn argitaratua).

Elorrion, 2026ko martxoaren 26an.

Julene Lazkano Zenitagoia
ALKATEA

ELORRIKO DENDETAN 2026KO EROSKETA KANPAINARAKO DIRULAGUNTZAREN OINARRI ARAUTZAILEAK (2026-00659 ESPEDIENTEA)

Elorriko Udalak Elorriko Merkatarien Elkartarekin –EME- batera 2026 urterako “ELORRIXON DENDARIK DENDA” kanpaina jarri du abian bertako dendetan erosketa sustatzeko helburuarekin.

Alde bien obligazioak arautzeko hitzarmena sinatuko da.

Kanpainak bertako dendariei laguntza eskainiko die erosketa-txartelen bidez honako asmo honekin:

- Elorriko merkataritza eta zerbitzuen sektoretan erosketa sustatzea.
- Adinez nagusiek %20a aurrezteko erosketak egiterakoan.

KANPAINAREN BEREZITASUNAK:

1. Elorriko Udalak 2026ko aurrekontuetako “Merkataritza bultzatzea” izeneko partida aurreikusi du eta 20.000 euro erabiliko ditu kanpaina honetan.
2. Bi mila (2.000) deskontu-txartel kaleratuko dira, bakoitza 30 eurokoa.

Deskontu-txartel bakoitzak 30 euroko balioa izango du eta 20 euro ordainduko dira.

18 urtetik gorako bakoitzak 2 txartel izango ditu eskuragarri gehienez NAN bakoitzeko.

3. Deskontu-txartel bakoitza kanpainan sartuta dauden dendetan erosketa bakarrean erabiliko da.
4. Erosketaren zenbatekoa gutxienez 30 eurokoa izango da txartel bakoitzeko.
5. Deskontu-bonuaren truke ez da dirurik emango, eta bonuagatik ordaindutakoa ez da itzuliko inondik inora ere.
6. Gehienez 2 bonu pertsonako, erosketa batean metatu ahal izango direnak (kasu honetan, erosketaren zenbatekoa gutxienez 60€ko izango da).
7. Deskontu-txartelen truke dirurik emango ez denez, erositako artikulua itzultzen bada dendak bale bat egingo dio erosketa-prezioagatik.
8. Banaketa zuzena lortze aldera atxikitako denda guztien artean, dendek deskontu-txartel kopuru mugatua trukatu ahal izango dituzte. Kopuru hau izango da deskontu-txartel kopurua zati atxikitako denden artean egindako zatiketaren emaitza.
9. Bonuak aplikazio informatiko baten bidez kudeatuko dira. Aplikazio honek saltokietako bonuen trukea eta Udalaren eta saltokien arteko komunikazioa kudeatuko ditu.
10. Deskontu-txartelak erabiltzeko epea 2026ko maiatzaren 2an zabalduko da eta urte bereko maiatzaren 31an itxi, biak barne.

DIRULAGUNTZA HONEN ONURADUNAK ETA KANPAINARI ATXIKITZEA

Dirulaguntza honen onuradun izan daitezke, eta, beraz, kanpainari atxiki, merkataritza edo zerbitzuen sektoreko enpresa-jarduera duten pertsona fisiko edo juridikoak (ikus EJZren xehetasunak) eta Elorriko duten salmenta-puntua.

JEZ zehaztasunak.- Merkataritza eta Zerbitzuak. JEZren epigrafeen sailkapenaren barruan kanpaina honetan atxikimendua eska dezakete honako epigrafe hauetariko baten alta emonda daudenak.

- 64: Establezimendu iraunkorretan, jangaien txikizkako merkataritza, 400 metro karratu edo hortik gorako salmenta-gunea duten dendak eta 64640 tabako epigrafea dutenak izan ezik.
- 65: Establezimendu iraunkorretan, jangaiak ez diren ekoizkin industrialen txikizkako merkataritza 655 epigrafedunak izan ezik: erregaiak, karburagaiak eta lubrifikatzaileak.
- 662: Era guztietako generoaren txikizkako merkataritza.
- 69: Konponketak: bakarrik 100 m2 baino gutxiagoko lokaletan.
- 755: Bidaia-agentziak.



Elorrioko udala
Idazkaritza
Secretaría

Herriko Plaza - **933: Irakaskuntza alorreko beste jarduera batzuk.**
48230 Elorrio-Bizkaia - **945: Albaitariak.**
Tel: 946 582 712 - **97 Zerbitzu pertsonalak: 974 eta 979 epigrafeak izan ezik, Etxeko zerbitzuen prestaketa agenziak eta Zerbitzu pertsonal arloko beste batzuk, hurrenez hurren.**
Faxa: 946 583 287
www.elorrio.eus - **671: Jatetxeak**

Nolanahi ere, onuradunak ez dira egongo Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan jasotako egoera eragozleetan.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzarako Legearen testu bategina onartzen duenak, 2.4 artikuluan xedatzen du laguntzen edo dirulaguntzen onuradun diren erakunde pribatuek 3. artikulua (printzipio orokorrak), 17. artikulua (estatistikak eta azterlanak) eta 19.4 artikulua (hizkeria inklusiboa eta ez-sexista) bete behar dituztela, udalaren eta onuradunaren arteko harremanari dagokion denboran eta gaian.

Zehazki, onuradunek honako hauek egin beharko dituzte:

- Diruz lagundutako jarduera guztietan komunikazio inklusiboa erabiltzea, hau da, ez da erabiliko pertsonak sexuagatik, generoagatik, jatorriagatik edo bestelakoengatik umiliatzen, degradatzen edo estereotipatzen dituen irudirik edo idatzizko adierazpenik. Pertsonen berdintasuna eta aniztasuna irudikatuko duten irudiak eta hizkuntza sustatuko dira.

Onuradun izateko debekua izango dute:

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan jasotako egoera eragozleren batean daudenak.

- Ezin izango dira onuradun izan administrazio-, lan- edo zigor-bidean berdintasunerako eskubidea urratzeagatik eta sexuagatiko bereizkeria egiteagatik zehapen irmoa jaso duten pertsonak edo erakundeak.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonak edo erakundeak.

- Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta egotea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera, sexuagatiko diskriminazioa barne.

- Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik diskriminatzen duten elkarte eta erakundeak.

Deialdi honetan parte hartzetik kanpo geratzen dira: Administrazio Publikoaren mendeko erakunde eta zerbitzuak eta aurrezki-erakundeak.

KANPAINARA ATXIKITZEKO ESKAERA ETA PROZEDURA.

1.- Eskaera

Parte hartu nahi dutenek kanpainarekin bat egin beharko dute, honako agiri hauek aurkeztuz:

- Atxikitzeko eskabidea, I. eranskinaren arabera, interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatua eta zigilatua.
- Eskatzailearen NAN/IFKaren fotokopia.
- Hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzen duen agiria. Ordezkaritza egiaztatzeko, zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabil daiteke, baldin eta ordezkaritza hori badela modu fidagarrian jasota uzten badu.
- Zerga betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez duela egiaztatzen duen agiria.
- Hirugarrenen alta behar bezala beteta. Agiri hau paperean edo online egin daiteke. Dokumentu horiek ez dira aurkeztu beharko Elorrioko Udalak aurretik egindako deialdietan aurkeztu badira, eta betiere dokumentu horiek edo horietan islatutako datuak aldatu ez badira.
<https://www.elorrio.eus/eu-ES/lzapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=295cb091-c85c-4be0-b4f4-c485119cdb35>

2.- Kanpainara atxikitutako establezimenduaren obligazioak.

Kanpaina honekin bat egiten duen pertsonak, bere establezimenduari dagokionez, konpromisoa hartzen du kanpainako informazio-materialak jasotzeko eta jartzeko establezimenduan, ondo ikusteko moduan.

Udalak horretarako deituko duen informazio-bilerara joateko konpromisoa hartzen du.

Deskontu-txartelak erabiltzeko eta trukatzeko ezarritako prozedura jarraituko du.

3.- Atxikimendu-eskaera aurkezteko lekua eta epea.

Eskaerak, ahal izanez, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Udalaren egoitza elektronikoen bidez, 2026ko apirilaren 13tik 17ra, 14:00ak arte.

Nolanahi ere, pertsona juridikoek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera behartuta dauden gainerako subjektuek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dute eskabidea, nahitaez.

Pertsona fisikoek honako hauek aurkeztu ahal izango dituzte:

- bide elektronikoz, udalaren egoitza elektronikoen bidez, edo
- Aurrez aurre, Udaleko Erregistro Orokorrean edo administrazio-prozeduraren araudian aurreikusitako edozein lekutan.

4.- Deskontu-txartelak lortzeko eta trukatzeko prozedura

Udalak kanpainari atxikitako saltokietako eskatzaileen artean banatuko ditu dagozkion bonuak, modu ekitatiboan.

Saltoki bakoitzari dagozkion bonuak aplikazioan egongo dira eskuragarri.

Atxikitako saltokiek kanpaina iragartzen duen identifikazio-kartel bat jarriko dute, eta interesdunek erosketak bertan egin ahal izango dituzte.

Erosleak esan egingo du deskontu-txartelak erabiltzeko asmoa duela (2 gehienez kanpaina osoan) eta NANA aurkeztuko du.

Saltokiak aplikazioan egiaztatuko du bezeroak ez duela bi bonuen maximoa kontsumitu, eta transakzioa automatikoki egingo da.

Saltokiak dagokion tiketa sartuko du aplikazioan.

Deskontu-txartel guztiak, dendetan, amaitzen direnean kanpaina iragartzen duen kartelaren ondoan emango zaion adierazgarria ipini beharko du ikusiko den lekuan. Bai, kartela, bai adierazgarria, dendan, ondo ikusiko diren lekuan jarri beharko dira kanpainaren azken egunera arte.

Lehen esandako salerosketan ez da salbuespenik onartuko.



Elorriko udala
Idazkaritza
Secretaría

Herriko Plaza
48230 Elorrio-Bizkaia
Tel: 946 582 712
Faxa: 946 583 287
www.elorrio.eus

Ez dira onartuko saltoki bakoitzari dagozkion bonuak baino gehiago.

Kanpainaren hasieran, eta bonuak banatu o ondoren, Udalak banatutako bonuen 3€ bono bakoitzeko ordainduko dio denda bakoitzari

Kanpaina amaieran, Udalak, denda bakoitzean jasotako datuekin egiaztapenak egingo ditu izapide guztiak zuzen egin direla egiaztatzeko, eta ondoren denda bakoitzari dagokion diru-laguntza ordainduko dio.